

■ ERRUGBIA - OHOREZKO B MAILARA IGOTZEKO FASEA



Atzo jokatu zutenak: Illarramendi, Seco, Sarasola, A. Mitxelena, Insausti, Lamaison, Iker Apezetxea, Otaño, Garmendia, Iñaki Apezetxea, San Miguel, Agirresarobe, I. Mitxelena, Larrañaga, Pintado. Kanbioak: Olano, Azurmendi, Arruabarrena, Pernas, Casado, Aginagalde eta Paredes.

Hernani mailaz igo duen taldea, partidua bukatu eta gero. Jokalariak, entrenatzaileak eta laguntzaileak.

Hernanik seguru eta ondo jokatuta irabazi zuen, eta datorren urtean Ohorezko B mailan izango da

■ Hernanik 21-0 irabazi zion atzo Xestur taldeari ■ Igoera faseko bi partidua irabazi ditu Hernanik ■ Lehenengo entsaioa egiten kosta zitzaion gehiena hernaniarrei ■ Jende asko bildu zen atzo Landaren.

Igoera fasea

Hernanik	21
Xestur-ek	0

OHOREZKO B mailan jokatuko du Hernanik datorren urtean. Atzo, 21-0 irabazi zuten igoera faseko bigarren partidua Galiziako Xestur taldearen kontra, eta Galizian ere hernaniarrek irabazi zuten (11-27), hernaniarrek

izango dira datorren urtean Ohorezko B mailan jokatuko dutenak.

Aurreneko zatia parekatua Hernaniarrek 35garren minutuan lortu zituzten lehen-dabiziko puntuak, Gorka Sarasolaren entsaioari eskerrak. Aritz Mitxelenak transformazioa sartu egin zuen, eta hala joan ziren deskantsora. Bigarren zatiko 15garren minu-

an Gurutz San Miguelek bigarren entsaioa egin zuen. Hortik aurrera galziarrek etsi egin zuten eta hernaniarrek errez ibili ziren. Aritz Mitxelenak eta Iraitz Garmendiak zigor kolpe bana sartu zuten eta partidua bukatzeraz zijoala Xabier Pintadok drop bat lortu zuen.

Jendea gustora
Partidua ikustera aspaldiko

herriar gehiena inguratu zen atzo Landarera, eta hori sumatu egin zen giroan. Bukar, jendeak txaloka hartu zuten bi taldeak eta jokalariek ere esker oneko txaloak jizkien Landaren bildutako jendetzari eta beste taldeko jokalariei. □



Aspaldiko jendetzarik haundiena bildu zen atzo Landaren.



Partidu ona izan zen atzokoa.

Aste Santuetan liburutegia itxita egongo da

ASTE Santuak direla-eta, itxita egongo da liburutegia datorren ostegunetik asteartera arte, apirilaren 8tik 12ra.

Kiroldegian ordutegi berezia Kiroldegian ordutegi berezia izango dute osteguna, ostirala eta astelehenean: irekita goizeko 09:00etatik 12:30ak arte egongo da kiroldegia (igandean ere bai normalean bezala). Larunbatean ordutegi normala izango du, 09:00etatik 12:30etara eta 16:00etatik 19:30etara. □

Hitzaldia Andragoton gaur, 'Sorkuntzarako Heziketa'

ANDRAGOTO Ateneoan hitzaldia emango dute gaur. *Sorkuntzarako Heziketa* izenburua du hitzaldiak eta gaiari buruz hitz egingo da gain, gaia bera pintura, buzina eta dantzari aplikatzen saiatuko dira. Andragoto ateneoan, gaur arratsaldeko 18:00etan. □

AHTren kontrako mendi irteera ostegunetik igandera

ABIADURA Handiko Trenaren Aurkako Asanbleak antolatuta, 4 eguneko mendi marxa egingo da ostegunetik igandera. Ostegunetan, 12:00etan abiatuko da ibilaldia Ezkio-Itsasotik. □

Odola emateko eguna bihar Anbulatorioan

BIHAR, apirilak 6, hileko lehenengo astearta da eta ohi bezala, odol-emaileen elkarteak dei egin du odola ematera joateko. Hernaniko anbulatorioan, 18:30etatik 20:30etara. □

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

**Eguneroko ogia
beti bikain**



Eziago poligonoa - Tel.: 943 550089
Elkano 12 - Tel.: 943 553142
Orkolaga 19 - Tel.: 943 331487
20120 Hernani


ETXE OMENAK, S.A.

GARAJE ITXIAK
"OBLATOS" ETAN
SALGAI

Informatu eta saldu:
☎ 943 33.22.37

g taberna-jatetxea
astelehenetik
igandera
10:00etatik

✓ Eguneko menua
✓ Menu berezia

Goizeko 10:00etatik aurrera
Gosariak, plater konbinatuak,
razioak, kaxuelak, bokatak, pintxoak...


Izpizua kalea 15 - HERNANI
☎ 943 55 00 02

JARDUNALDI EXTREMEÑOAK

Eguraldiak lagunduta jende asko bildu zen atzo Latsunben, Jardunaldi Extremeñoetan

ASTEBURU honetan ospatu dira, urtero bezala, Jardunaldi Extremeñoak. Extremadurako produktuak, dantzak, kultura, geografia... erakusgai izan dute antolatzaileek, eta jende asko inguratu da Latsunbera larunbat eta igandean, goiz edo arratsalde pasa egitera. Jenderik gehiena atzo inguratu zen Latsunbera, eguraldiak lagunduta, eta lan haundia egin behar izan zuten serbitzen eta informazioa ematen ari ziren antolatzaileek. Extremadurako dantzak urteroko ikuskizuna izaten dira eta atzo ere jende askoren harreta piztu zuten. □



Atzo eguerdi aldera bildu zen jende gehiena jardunaldietara.

PELOTA - BERRIA TXAPELKETAKO FINALAK



Finalak hasi aurretik pelotariak eta txapelketako antolatzaileak.

ZAZPITURRI taldeak irabazi du Berria Pelota Txapelketa. Atzo jokatu ziren Hernanin, Berria txapelketako finalak. Amezketako Zazpiturri eta Bidegoian-Albizturko Aurrera Saiatz taldeak ziren finalistak eta amezketarrek irabazi zituzten jokaturako hiru partiduak. Aurten jokatu da lehendabiziko aldiz Berria txapelketa, Euskal Herriko pelota eskola onenak tartean zirela. Antolatzaileak gustora ziren atzo, finalak bukatu ostean. □

KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA	Taldeak	Emaitza	BOLEIBOLA	Taldeak	
Gorengo maila	BetiGazte -Hernani	0-0	Igoera fasea	UniRbja -Hernani	2-3
Emakumezkoen Kopa	Ostadar-Hernani	1-3	Igoera fasea	Hernani-BereziGasteiz	3-2
Gazteen Euskal Liga	Hernani-Lagun Onak	0-2	Euskad.Nesk.	UniNavarra -Hernani	3-1
Gazteen 1 maila	Oribko -Hernani	2-2	WATERPOLOA		
Kadeteen Ohorezko liga	Hernani-Touring	2-0	Euskal Liga Mut	HernaniA -Mendixu	4-6
Kadeteen 1 maila	Hernani-Vasconia	0-0	Euskal Liga Nes	Club Natacion Pamplona -Hernani	7-6
Haurren Ohorezko Liga	Hernani-Añorga	0-4	ERRUGBIA		
Alebinak	Hernani-Lengokoak	6-3	Igoera fasea	Hernani-Xestur	21-0
SASKIBALOA			Kadeteak	Hernani-Oñiza	46-0
Kadegipuzko	ZarauztC -Hernani	58-50	Infantilak	Hernani-Añetko Ssebastian	25-20
PELOTA			Aleb. BO Tome	Bilart-Hernani	5-15
Berria Txapelketa Finala	Zazpitu-Aur.Saiz	3-0	Aleb. BO Tome	Avion Bayonaiz -Hernani	20-5
			Aleb. BO Tome	Bath RFC -Hernani	10-10

HITZ BITAN



Hernaniarrek asteburu honetako bi partiduak irabazi dituzte.

✓ BOLEIBOLA - IGOERA FASEA

Hernani 1 Dibisiotik gero eta gertuago. Mutilen Dibisio Autonomikoan, Hernanik asteburu honetako bi partiduak irabazi ditu eta Berezi Gasteizen kontra jokatu beharko du 1 Dibisiora igotzeko partidua. Hernanik larunbatean Universidad Riojari irabazi egin zion 2-3, eta atzo Berezi Gasteizi 3-2. Orain azken fasean atzoko aurkari beraren kontra neurtu beharko dituzte indarrak hernaniarrek.

Bestalde, emakumeen Dibisio Autonomikoan, Hernanik 3-1 galdu zuen atzo Universidad Navarra taldearen kontra.

✓ MUSA - ARALAR TABERNA

Txapelketako partidak gaur eta bihar. Aralar tabernako mus txapelketa jokuan da, eta gaur eta bihar 8 partida jokatu dira. Gaurko partidak: Joxe-Axier / Patxi A-Patxi B; Kolonbo-Txema / Katu-XX; Balantxa-Balantxa / Nico-Paste; eta Pablo-Josetxo / Haritz-Urko. Biharko partidak: Martin-Urtzi / Inaxio-Joseba; Jabier-Pello / Iñaki-Arribi; Imanol-Jesus / Xabier-Iñaki; eta Zulaika-Uria / Arkaitz-Pako.

✓ WATERPOLOA

Hernanik igoera promozioa jokatu lezake. Mutilen Euskal Ligan, Hernani A taldeak galdu egin du asteburu honetan 4-6 Menditxo taldearen kontra, baina, oraindik aukera haundiak dauzka igoera promozioa jokatzeko. Bi partidu jokatu behar dituzte hernaniarrek eta bietako bat irabaztea nahikoa dute promozioan sartzeko.

Bestalde, emakumeen Euskal Ligan Hernanik irabazi egin du Club Natacion Pamplona taldearen kontra, 7-6.

✓ BOLA - ERREGULARITATE TXAPELKETA

Miguel Burugain onena atzoko tiraldian. Miguel Burugain izan zen onena, atzo, 49 brila botata, Erregularitate txapelketako 10garren tiraldian. Miguel Arrospide eta Jose Mari Usabiaga izan ziren hurrengo hernaniarrak eta 6 eta 7 postuetan gelditu ziren 46na brila botata. Sailkapen Orokorrean Altzako Nikolas Osaba dago lehendabiziko postuan 452 brila botata eta Hernaniko onenak Burugain eta Antonio Miner dira (azken honek irabazi zuen orain bi asteko tiraldia Añorgan), eta 7 eta 8garren postuan daude. Datorren astean dute azken tiraldia Idiazabalen eta Sailkapen Orokorreko lehendabiziko 9 lagunak pasako dira Euskal Herriko txapelketara.

✓ SASKIBALOA

Hernanik 58-50 galdu, Zarautzen kontra. Hernaniko saskibaloit taldeak galdu egin zuen larunbatean Zarautzen kontrako partidua. Partidu gogorra izan zen eta bi taldeek ere berdintsu jokatu zuten bukaera arte. Azkenean 58-50 nagusitu ziren zarauztarrak. □

IRAGARKI MERKEAK

Hernani inguruko jatetxe batean barrarako zerbitzari bat behar dugu. Ibilgailua behar da. Deitu: **943 55 02 54 (astelehenetik-ostiralera)** edo **608 12 07 32**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)**

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶Taxiak: 943 550093
- ▶Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶DYA: 943 464622
- ▶Autobusak: 943 556662
- ▶Anbulatorioa: 943 006666
- ▶Jokalaria anonimoak: 943 331103

✚ FARMAZIAK

- ▶Egunez: Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738
- ▶Gauetz: Arzallus Andoain. Plazaola 17, pol 25 ☎ 943 591514

dobEra
EUSKARA ELKARTEA

DOBERA SARIA II. EDIZIOA

3.000 EUROKO DIRU LAGUNTZA

HERNANIRI BURUZKO LAN BAT SARITUKO DA:

- Banaka zein taldeka egin daiteke.
- Lana euskaraz izango da.
- Lana egiteko epea: 6 hilabete.
- Proposamenak aurkezteko epea *apirilaren 30a*.
- Agiri guztiak Dobera Elkartera bidali behar dira. (Larramendi - 11 ; Telf: 943-332799)



Hernaniko Udala